



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/03/14

## **Gernikako Arbolaren kimua Ertzaintzak "bakeagaz, alkarbizitzagaz eta giza eskubideakaz" daukan konpromisoaren sinboloa da**

Erandioko Ertzaintzaren base nagusia izan da gaur Gernikako Arbolaren kimu baten landaketaren agertokia. Une honetan Gernikako Batzarretxean dagon haretxaren anaiak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko eta Bizkaiko Batzar Nagusietako arduradun nagusi biak alkartu ditu gaur Ertzaintzak Bizkaian daukan egoitza nagusian. Estefanía Beltrán de Herediak eta Ana Otadui bota ditue lehenengo palakadak euskal askatasunen sinboloa dan kimuaren gainean, Ertzaintzako agintariek eta Bizkaiko Batzarretako batzarkideek lagunduta.

Kimua landatzeko zeremonia, "Ertzaintzak Euskadiren bakeagaz, elkarbizitzagaz eta giza-eskubideen errespetuagaz daukan konpromisoaren" sinboloa izan da, Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentek azpimarratu dauenez. "Gaurko ekitaldi honetan, omenaldia egin gura deutsegu zerbitzuan eroritako ertzain guztiei, eta berretsi egin gura dogu Euskal Herriak dauen Bake eta Askatasun gogoan, Gernika horren sinbolo izanik. Era berean, sendetsi egiten dogu Ertzaintzaren apustu sendoa euskal herritar guztien giza-eskubideak zaindu eta zainarazotearen alde", esan dau.

Haretx sakratuaren kimuak zabaltzeko eskariak "asko" diran arren, Otadui adierazo dau berretzat "beti dala ohorea" beste kimu baten landaketan parte hartzea. Gaurtik aurrera, Bizkaiko Ertzaintzaren egoitzak bat egingo dau oroimen historikoagaz eta bakeagaz erlasionautako leku enblematikoakaz, Auschwitzegaz edo Sartagudagaz (Alargunen herria), besteak beste. Bizkaiko Batzarretako presidentek adierazo dauenez, Gernikako haretxaren sinbologia beti egon da "oso loturik Euskadiko poliziaren sinbologiagaz. Ertzain-agintarien galoietan hondino be haretx-orria dago". Horregaitik, Gernikako haretxaren orri bat aginte sinbolo moduan eroatea "erantzukizun are handiagoa" dala uste dau.

Segurtasun Sailburuak, bere aldetik, joan dan apirilean, Miguel Etxagibeli, zemendian hil zan 36ko ertzainari, eskini jakon omenaldi hunkigarriagaz hasi zan Ertzaintzaren 80. urteurrenaren ospakizun zikloari amaiera emotea gura izan deutso ekintza sinboliko honen bitartez.

"Erandioko egoitzako lur honen indarra jasoten hasi barri dan kimu honek, eskintzen dogun segurtasun zerbitzuaren eta herritarren artean beharrezkoa dan batasun hori be irudikatzen dau. Askatasunak, alkarbizitzea eta ongizatea bermatzeko egiten dogun behararen eta gure eguneroko jardunean gure zerbitzuak jasoten dituen pertsonen eta erakundeen arteko batasuna", adierazo dau Estefanía Beltrán de Herediak, eta eskerrak emon deutzaz Patxi Vallejori, bere egunean izan eban ekimenarengaitik.

Ekitaldiari amaiera emoteko, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek kimuaren benetakotasun ziurtagiria emon deutso, eta Segurtasun Sailburuak haretx-orriaren irudikapen sinbolikoagaz erantzun. Ertzaintzaren Ereserkiak emon deutso bukaera ekitaldiari.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
14/03/2017

## **Un retoño del Árbol de Gernika simboliza el compromiso de la Ertzaintza por "la paz, la convivencia y los derechos humanos"**

La base central de la Ertzaintza en Erandio ha sido escenario hoy de la plantación de un retoño del Árbol de Gernika. Un hermano del roble que actualmente crece en la Casa de Juntas de Gernika ha reunido esta tarde en la sede principal de la policía autonómica en Bizkaia a los dos máximos responsables de la Consejería de Seguridad del Gobierno Vasco y de las Juntas Generales. Estefanía Beltrán de Heredia y Ana Otadui han echado las primeras paladas al ejemplar que simboliza las libertades vascas, acompañadas por mandos de la Ertzaintza, y junteros y junteras del Parlamento vizcaíno.

La ceremonia de plantación del retoño ha venido a simbolizar “el compromiso de la Ertzaintza con la paz en Euskadi, la convivencia y el respeto a los derechos humanos”, ha destacado la presidenta de Juntas, Ana Otadui. “Hoy plantando este retoño homenajeamos a todos los y las ertzainas caídos en actos de servicio, reafirmamos el anhelo de Paz y libertades del Pueblo Vasco que tan bien simboliza Gernika y confirmamos la decidida apuesta de la Ertzaintza por un respeto escrupuloso a los derechos humanos de toda la ciudadanía vasca”, ha dicho.

Pese a que son “muchas” las peticiones para extender la descendencia del sagrado roble, Otadui ha significado que para ella es “siempre un honor” participar en la plantación de un nuevo retoño. A partir de hoy, la sede de la Ertzaintza en Bizkaia se une a lugares emblemáticos relacionados con la memoria histórica y la paz como Auschwitz o Sartaguda (el Pueblo de las viudas). La presidenta del Parlamento vizcaíno ha significado que la simbología del roble de Gernika ha estado también “muy unida a la iconografía de la Policía Vasca, y todavía lo está a través de los galones de sus mandos”, por eso cree que llevar una hoja del roble de Gernika como símbolo de autoridad “es una responsabilidad añadida”.

Por su parte, la Consejera de Seguridad ha querido que este acto simbólico pusiera fin al ciclo de celebración del 80 Aniversario de la Ertzaintza que se inició en abril del año pasado con el emotivo homenaje a Miguel Etxagibel, ertzaina del 36 que falleció en noviembre.

“Este retoño que acaba de empezar a recibir la sabia de esta tierra de la sede de Erandio, también viene a reflejar esa unión necesaria entre el servicio de seguridad que ofrecemos y la ciudadanía. Entre la labor que desarrollamos para garantizar las libertades, la convivencia y el bienestar, y las personas e instituciones a las que atendemos en el día a día”, ha manifestado Estefanía Beltrán de Heredia, que ha agradecido a Patxi Vallejo, ertzaina ya jubilado de la Unidad de Tráfico, por la iniciativa que tuvo en su día de que un retoño del roble más famoso y simbólico de Euskadi creciera en un lugar preferente de la Base de Erandio.

El acto que ha comenzado con el depósito de un texto del Lehendakari Iñigo Urkullu ("Kimu berri indartua, segurtasunaren etxera Dakar, Gernikako arbola zaharraren, itzal emankorra. / Kimu gazte, zabal ezazu lur berrian, Gernikako ikurraren herri izaera, gu-guztion Segurtasuna, pake iraunkorra eta ongizatea, etengabe berrituz") se ha cerrado con la entrega por parte de la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia de un certificado de autenticidad del retoño, al que ha correspondido la Consejera de Seguridad con una representación simbólica de una hoja del roble. Los acordes del Himno de la Ertzaintza han puesto el punto final a la ceremonia.